

PARETA BELARRA

Senda 
belarrak

haziako 

sendabelarrak.haziak.eus
CC BY-SA-NC

PARETA BELARRA

(*Parietaria Officinalis*)

PARETA BELARRA/HORMA BELARRA/GIBEL BELARRA

Euskarazko izenek askotan pistak ematen dizkigute. Belar hau pareta baten ondoan aurkituko dugu beti. Pareta belarra dela jakiteko gako bat arropan itsasten dela da.

Bereziki gibela garbitzeko erabiltzen da paretetan jaiotzen den sendabelar hau.



INFUSIOA



UKENDUA



GORPUTZA
ZAIINTZEA



Aire

PARETA BELARRA

IDENTIFIKATZEKO GAKOAK

Nolakoa da?

- Berde koloreko hosto txiki iletsuak ditu.
- Zurtoina gorria eta iletsua izaten du, eta bertan lore berde eta gorrixka txikiak izaten ditu.

Noiz loratzen da? Otsailetik aurrera.

Non aurkituko dugu? Belarraren izenak dioen bezala paretak atsegin ditu, bai eta behar ere. Ez dugu sekula zelai baten erdian aurkituko.

ZERTARAKO

- Bere ezaugarriarik edo erabilerarik nagusienetarik bat **gibela garbitzea**rena da. Diuretikoak edo pixeragilea ere bada.
- Honetaz gain **zauriak ixteko eta garbitzeko, erredura txikiak sendatzeko, furunkuluak sendatzeko, etab.** ere erabiltzen da.
- **Aurpegiko nerabetasun granoak**, larru azal oso lehorrak edota aurpegia zertxobait errebadugu eguzkiarekin ere erabili daiteke.

BILTZEKO GARAIAN

- Behar duguna soilik hartuko dugu beste guztia bertan utziaz.
- Zainak ez badira erabiltzen ez ditugu zainak jasoko, bestela belar hori ez da berriz hor jaioko.

- Babestutako eremuetan ez jaso eta aukera dagoenetan landare asko dagoen tokian bildu.
- Landarea eta ingurua zaindu.
- Kontuz kutsadurarekin, kotheen keak, txisa...

ATAL PRAKTIKOA

KONTUZ! Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesional batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordeko.

- **Zauriak ixteko eta garbitzeko, erredura txikiak sendatzeko, furunkuluak sendatzeko, etab.** ere erabiltzen da. Honetarako kataplastak edo enplastoak egingo ditugu. Landare freskoa hartu, garbitu eta erabat txikituko dugu. Behin honela dugunean beharrezko den tokian jarriko dugu. Hau egunean bi edo hiru aldiz egingo dugu.
- **Aurpegiko nerabetasun granoak daudenean** aurpegian freskura sentazioa lortzen da pareta belar urarekin garbituz. Landareak ontzitxo batean jarri eta ura bota erabat estali arte eta gau guztia utzi uretan beatzen. Hurrengo goizean ur horrekin aurpegia garbituko dugu eta egun batzuetan aurpegiko larru azala freskotasuna hartzen joango dela ikusiko dugu.

PARETA BELARRA

AKTIBITATEAK

Hurbildu zaituzte horma batera ea pareta belarra aurkitzen eta identifikatzen duzun, gogoratu arropan itsasten dela.

ADI!! Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordezkariak. Beti ere sendagile edo jakitun baten aholkupean eta ez ditugu behin ere kantitateak gehituko arriskutsua izan daitekeelako. Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesionak batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Hemen emandako informazioaren erabilera okerra eginez gero, ez gara sor daitezken arazo edo eta kalteen erantzule izango.